

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2200

1114/2022 EBAZPENA, maiatzaren 6koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez aldatu egiten diren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren Ebazpen hauek: martxoaren 10eko 854/2022 eta 855/2022 Ebazpenak, martxoaren 15eko 880/2022, 881/2022, 882/2022, 883/2022, 884/2022, 885/2022, 886/2022, 887/2022, 888/2022, 889/2022, 890/2022, 891/2022, 892/2022, 893/2022, 894/2022 eta 895/2022 Ebazpenak eta martxoaren 17ko 901/2022, 902/2022, 903/2022, 904/2022, 905/2022, 906/2022, 907/2022, 908/2022, 909/2022, 910/2022, 911/2022, 912/2022, 913/2022, 914/2022 eta 915/2022 Ebazpenak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 10eko 854/2022 eta 855/2022 Ebazpenen, martxoaren 15eko 880/2022, 881/2022, 882/2022, 883/2022, 884/2022, 885/2022, 886/2022, 887/2022, 888/2022, 889/2022, 890/2022, 891/2022, 892/2022, 893/2022, 894/2022 eta 895/2022 Ebazpenen eta martxoaren 17ko 910/2022 Ebazpenaren bidez, estatu-tupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautzeko oinarri espezifikoak onartu ziren kategoria eta lanpostu funtzional hauetarako:

- Alergologiako FEM.
- Anatomia Patologikoko FEM.
- Kirurgia Orokorreko eta Digestio Aparatuko FEM.
- Ahoko eta Aurpegi Masailtako Kirurgiako FEM.
- Kirurgia Pediatrikoko FEM.
- Dermatologia Mediko Kirurgikoko eta Benereologiako FEM.
- Endokrinologiako eta Nutrizioko FEM.
- Hematologiako eta Hemoterapiako FEM.
- Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko FEM.
- Barne Medikuntzako FEM.
- Medikuntza Nuklearreko FEM.
- Prebentzio Medikuntzako eta Osasun Publikoko FEM.
- Nefrologiako FEM.
- Pneumologiako FEM.
- Neurologiako FEM.
- Obstetriziako eta Ginekologiako FEM.

- Oftalmologiako FEM.
- Onkologia Medikoko FEM.
- Otorrinolaringologiako FEM.
- Psikiatriako FEM.
- Haur Psikiatriako FEM.
- Erradiodiagnostikoko FEM.
- Erreumatologiako FEM.
- Zainketa Aringarrien FEM.
- Emergentsietako FEM.
- Gaixotasun Infekziosoen Arloko FEM.
- Epidemiologia Klinikoko FEM.
- Etxeko Ospitalizazioko FEM.
- Laneko Medikuntzako FEM.
- Ospitaleko Pediatriako FEM.
- KSUko FEM.
- Analisi Klinikoko FEMT.
- Biokimika Klinikoko FEMT.
- Immunologiako FEMT.
- Ospitaleko Erradiofisikako FEMT.
- Ospitaleko Farmaziako FET.
- Psikologia Klinikoko FET.
- Farmaziako FT.
- Odontologiako FT.
- Mantentze-lanetako eta Instalazioetako Erdi-Mailako Teknikaria.

Ebazpen horien IV. eranskinean, gai-zerrenda komuna atalean, hau agertzen da: «10.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen xedea. Printzipio orokorrak. Jazarpen sexista.»

Era berean, gai-zerrenda komunaren bibliografia atalean, honako hau agertzen da: «10.– 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa (1., 3. eta 43. artikulua).»

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legearen bidez, aldatu egiten dira, besteak beste, 1. artikulua edukia (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen xedea), 3. artikulua edukia (Printzipio orokorrak) eta 43. artikulua izena (Jazarpen sexista) eta edukia; azken horri, aurrerantz, «Laneko segurtasuna eta osasuna» deituko zaio.

Ebazpen horiek eman zirenetik (2022ko martxoaren 10, 15 eta 17a) eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu arte (apirilaren 4 eta 5a), arau-aldaketa bat gertatu da. Izan ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren bezala aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legea argitaratu da eta argitaratu eta hurrengo egunean jarri da indarrean, hau da, 2022ko martxoaren 18an.

Ondorioz, Ebazpenetako gai-zerrenda eta bibliografia indarreko legeriara egokitzeko, beharrezkoa da gai-zerrenda komuneko 10. gaia eta gai-zerrenda komunaren bibliografiako 10. atala aldatzea.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 17ko 901/2022, 902/2022, 903/2022, 904/2022, 905/2022, 906/2022, 907/2022, 908/2022 eta 909/2022 Ebazpenaren bidez, estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautzeko oinarri espezifikoak onartu ziren kategoriatan eta lanpostu funtzional hauetarako:

- Administrazio eta Kudeaketako Goi Mailako Teknikaria.
- Ekonomiako Goi Mailako Teknikaria.
- Informatikako Goi Mailako Teknikaria.
- Letradua eta Goi Mailako Teknikari Juridikoa.
- Mantentze Lanetako eta Instalazioetako Goi Mailako Teknikaria.
- Euskararen Normalizazioko Goi Mailako Teknikaria.
- Antolakuntzako Goi Mailako Teknikaria.
- Ergonomiako eta Psikosoziologiako Prebentzioko Teknikaria.
- Segurtasuneko eta Higieneko Prebentzioko Goi Mailako Teknikaria.

Ebazpen horien IV. eranskinean, gai-zerrenda komuna atalean, hau agertzen da: «8.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen xedea. Printzipio orokorrak. Jazarpen sexista.»

Era berean, gai-zerrenda komunaren bibliografia atalean, honako hau agertzen da: «8.– 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa (1., 3. eta 43. artikulua).»

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren bezala aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legearen bidez, aldatu egiten dira, besteak beste, 1. artikulua (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen xedea), 3. artikulua (Printzipio orokorrak) eta 43. artikulua (Jazarpen sexista) eta edukia; azken horri, aurrerantzean, «Laneko segurtasuna eta osasuna» deituko zaio.

Ebazpen horiek eman zirenetik (2022ko martxoaren 17a) eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu arte (apirilaren 6a), arau-aldaketa bat gertatu da. Izan ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren bezala aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legea argitaratu da eta argitaratu eta hurrengo egunean jarri da indarrean, hau da, 2022ko martxoaren 18an.

Ondorioz, Ebazpenetako gai-zerrenda eta bibliografia indarreko legeriara egokitzeko, beharrezkoa da gai-zerrenda komuneko 8. gaia eta gai-zerrenda komunaren bibliografiako 8. atala aldatzea.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 17ko 911/2022, 912/2022, 913/2022, 914/2022 eta 915/2022 Ebazpenen bidez, estatutupeko lotura finkoa lortzeko

hautaketa-prozesuak arautzeko oinarri espezifikoak onartu ziren kategoria eta lanpostu funtzional hauetarako:

- Sukaldaria.
- Informatikako Teknikaria.
- Girotze Instalazioetako Teknikaria.
- Instalazio Elektroetako Teknikaria.
- Elektromedikuntzako Instalazioetako Teknikaria.

Ebazpen horien IV. eranskinean, gai-zerrenda komuna atalean, hau agertzen da: «6.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen xedea. Printzipio orokorrak. Jazarpen sexista.»

Era berean, gai-zerrenda komunaren bibliografia atalean, honako hau agertzen da: «6.– 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa (1., 3. eta 43. artikulua).»

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenez aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legearen bidez, aldatu egiten dira, besteak beste, 1. artikulua (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen xedea), 3. artikulua (Printzipio orokorrak) eta 43. artikulua (Jazarpen sexista) eta edukia; azken horri, aurrerantzean, «Laneko segurtasuna eta osasuna» deituko zaio.

Ebazpen horiek eman zirenetik (2022ko martxoaren 17a) eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu arte (apirilaren 6a), arau-aldaketa bat gertatu da. Izan ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenez aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legea argitaratu da eta argitaratu eta hurrengo egunean jarri da indarrean, hau da, 2022ko martxoaren 18an.

Ondorioz, Ebazpenetako gai-zerrenda eta bibliografia indarreko legeriara egokitzeko, beharrezkoa da gai-zerrenda komuneko 6. gaia eta gai-zerrenda komunaren bibliografiako 6. atala aldatzea.

Indarrean dagoen legediak emandako ahalmenez baliaturik,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 854/2022, 855/2022, 880/2022, 881/2022, 882/2022, 883/2022, 884/2022, 885/2022, 886/2022, 887/2022, 888/2022, 889/2022, 890/2022, 891/2022, 892/2022, 893/2022, 894/2022, 895/2022 eta 910/2022 Ebazpenak aldatzea, honela:

Ebazpen horien IV. eranskinean, gai-zerrenda komuna atalean,

hau esaten den tokian:

«10.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen xedea. Printzipio orokorrak. Jazarpen sexista.»

hau esan behar du:

«10.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen xedea. Printzipio orokorrak. Laneko segurtasuna eta osasuna.»

Ebazpen horien IV. eranskinean, gai-zerrenda komunaren bibliografia atalean,

hau esaten den tokian:

«10.– 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa (1., 3. eta 43. artikulua).»

hau esan behar du:

«10.– 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenez aldatzen duena (1., 3. eta 43. artikulua).»

Bigarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 901/2022, 902/2022, 903/2022, 904/2022, 905/2022, 906/2022, 907/2022, 908/2022 eta 909/2022 Ebazpenak aldatzea, honela:

Ebazpen horien IV. eranskinean, gai-zerrenda komuna atalean,

hau esaten den tokian:

«8.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen xedea. Printzipio orokorrak. Jazarpen sexista.»

hau esan behar du:

«8.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen xedea. Printzipio orokorrak. Laneko segurtasuna eta osasuna.»

Ebazpen horien IV. eranskinean, gai-zerrenda komunaren bibliografia atalean,

hau esaten den tokian:

«8.– 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa (1., 3. eta 43. artikulua).»

hau esan behar du:

«8.– 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenez aldatzen duena (1., 3. eta 43. artikulua).»

Hirugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 911/2022, 912/2022, 913/2022, 914/2022 eta 915/2022 Ebazpenak aldatzea, honela:

Ebazpen horien IV. eranskinean, gai-zerrenda komuna atalean,

hau esaten den tokian:

«6.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen xedea. Printzipio orokorrak. Jazarpen sexista.»

hau esan behar du:

«6.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen xedea. Printzipio orokorrak. Laneko segurtasuna eta osasuna.»

Ebazpen horien IV. eranskinean, gai-zerrenda komunaren bibliografia atalean,

hau esaten den tokian:

«6.– 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa (1., 3. eta 43. artikulua).»

hau esan behar du:

«6.– 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea bigarrenez aldatzen duena (1., 3. eta 43. artikulua).»

Laugarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 6a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.